

**2019ko APIRILAREN 30eko
UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2019ko apirilaren 30ean, arratsaldeko zortziretan Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
- Maite Bizkarrondo Arzallus

Ez da/dira batzarreratu

- Miren Amaia Askasibar Agirre

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

BAKARRA:

2019KO MAIATZAREN 26KO EUROPAKO, UDALETAKO ETA BATZARRETAKO HAUSTENKUNDEETAN PARTE HARTUKO DUTE HAUTESKUNDE MAHAIEK KIDEEN IZENDATZEA.-

Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, deialdi ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean, Udalek Hauteskunde Mahaiak osatzera jo behar dute, Eskualdeko Hauteskunde Junten gainbegiratupean

Apirilaren 2ko E.A.O.-ean 206/2019 eta Apirilaren 2ko G.A.O.-ean 1/2019 Foru Dekretua argitaratzen dira, zeinaren bitartez datorren maiatzaren 26an egingo diren Europako, Udaletako eta Batzarretako Hauteskundeen deialdia egiten den, hautatu beharko direlarik, Gipuzkoan, Udal Korporazio ezberdinen osaketa berria, Batzar Nagusia eta Europako Parlamentua.

Ondorioz, hauteskunde mahaien osaketa apirilaren 27tik maiatzaren 1ra artean egin behar da.

5/1985 Legearen 26. aipaturiko artikulua 2. atalean, Lehendakaria eta Bokalak dagokion Sekzioan erroldatutako pertsona guztien artean zozketaz izendatuak izan behar dutela ezartzen da, irakurtzen eta idazten dakitenak eta Lehendakariak Batxilerreko edo bigarren mailako Lanbide-Hezkuntzako titulua izan behar du, edo subsidiarioki, Eskola-Gradudunarena edo baliokidea

Ondorio horietarako, apirilaren 4ko datarekin Alkatetzak Iragarki bat argitaratzea erabaki zuen, aparteko bilkura hau ospatzeko lekua, eguna eta orduaren berri emanez, aurrez aipaturiko zozketa publikoaren gauzatzerako joko denaren barruan.

Hauteskunde Junta Zentralaren errepikatutako doktrinaren arabera, Udalbatzari dagokio hauteskunde mahaiaren kideen izendapena.

Hala bada, zozketa publikoa egitera jo ondoren eta bere emaitzarekin bat etorritik, Udalbatzak, aho batezko adostasunez ,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA:

Jarraian aipatzen diren hauteskunde mahaietako lehendakariak eta kideak izendatzea:

Mahaiburua: Mikel Mendizabal Amundarain

1. Mahaikidea: Antonio Goñi Ochoteco
2. Mahaikidea: Miren Nekane Arostegi Laka

Mahaiburuaren 1.ordezkoa: Itsaso Andueza Fernandez

Mahaiburuaren 2.ordezkoa: Miren Amaia Askasibar Agirre

1. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Jacinto Santos Perez
1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Maria Jose Martin Portu

2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Jorge Nzabal Egues

2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Rafael Mariezkurrena Ugartemendia

Egoera honetan, 20.20 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren isla zehatza dena. Fede ematen dut.

Elduain, 2019ko apirilaren 30ean.

O.e.
Alkateak
Jose Angel Urkizu Odriozola

Idazkari-Kontu-hartzaileak,
Maria Pilar Garmendia Miguel



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY

